



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/11/21

Aldundiak defendidu egin dau Bizkaia Zubiko terrazak kulturarako eta ostalaritzarako gune moduan erabiltea

Lorea Bilbao Euskera eta Kultura saileko foru arduraduna oposizinoak eskatuta etorri da Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kultura batzordera, hiru gairen inguruko azalpenak emoteko: Bizkaia zubiko alboko terrazen alokairuaren gaineko informazioa; Gernikako Andra Mari eleizearen atarian egoan XV. mendeko San Pauloren irudia apurte izanaren inguruko azalpena; eta Athletic-eko nesken talde batek mutilen haur mailako ligan parte hartzea “eragozteko” hartu dan erabagia.

Beste ezer baino lehen, Bilboko zubi “eskegiaren” terrazetan instalau dan ostalaritzako ustiapena eta gune kulturala defendidu ditu. 2006an Unescok Gizateriaren Ondarea izendau eban Bizkaia Zubiaren behekaldean dagozan gune horreek, transbordadoreaz gozetako “aktiboa” dira, eta “ziurrenez bisitari gehiago hurbiltzen lagunduko dabe”. Diputatuak ezeztu egin dau terraza horreen ostalaritzako ustiapenak ondare elementuari “kalterik” egiten deutsonik, eta EH Bilduri erantzunda, erabilerak Unescoren eta Kosta Mugartearen on ikusia dituala adierazo dau.

Aldundiak balioan jarri dau konpainia kudeatzaileak orain urte batzuk egin eban beharra, 1893an inaugurau zan zubia zaharbarritzeko eta garbitzeko prozesu “integralaren” ostean. Prozesu horretan, “jendeak erabilteko moduko” guneen egokitzapena jasoten da, lau terraza edo goikaldeko igarobidea, besteak beste. Leku horreetan hainbat ekitaldi eta ospakizun egiten dira, erakusketak, aurkezpenak, festak edo omenaldiak, adibidez.

EH Bilduk, bere aldetik, “erespide desbardinak” erabilten ditu, Aldundiarenakaz alderatuta. Dana dala, bere ustetan, instaletan danaren (aulkiak, mahaiak, eguzkitakoak eta mota guztietako apainketa) bolumetriak sarri askotan “oztopatu egiten dau”, “nazinoarteko mailea daukan lanaren” ikuspegia. Monumentua “degradau eta zapaldu” egiten dabe eta kultur ondarearen aurrean sentsible diran pertsonen kontrako eretxia eragin leikie, Txusa Padrones batzordekideak adierazo dauenez. Zubiak “erabateko” babesa eukitearen alde agertu da.

Podemos Bizkaia taldea be, koalizino abertzaleak merkataritza arloko ustiapena baztertzeko erakutsi dauen asmoaren alde agertu da, “gune publikoaren zelanbaiteko pribatizazioa” dalako. Batzarretako gainerako taldeak –EAJ-PNV, PSE-EE eta PP– merkataritza edo kultura arloko erabileraren alde agertu dira, jendea erakarteko ardatz izan daitekezalako, nazinoarteko beste enblema arkitektoniko batzuekaz gertatzen dan moduan. Jeltzaleen eretxiz, Parisko Eiffel Dorrean gertatzen dan gauza bera da. Dana dala, uste dabe “beti dagola egoerea aldatzeko aukerea”.

NESKEN FUTBOLA

Diputatuak Podemos Bizkaia taldeari be erantzun deutso, Aldundiak Athletic-eko nesken talde batek mutilen ume mailako futbol 11ko ligan parte hartzea “eragozteko” hartu dauen erabagiaren inguruan. Bilbaok adierazo dauenez, lehiaketea hasi aurretik Aldundiak hartu eban erabagia ez zan “alde bakarreako” izan, Athletic taldeagaz, gainerako taldeakaz, Bizkaiko futbol



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

federazioagaz, Foru Aldundiko bardintasunerako zuzendaritzagaz eta Emakundegaz adostuta hartu zan.

Athletic taldeak, futbol 9ko ume mailako nesken bere taldeak mutilen lehiaketea jokatzea gura izateari Aldundiak emon eutsan erantzuna “azterlan teknikoetan eta doktoretza tesietan” oinarrituta dago. Bertan, adinbako nesken “garapen mailea” eta kirolaren beraren ezaugarriak hartu dira kontuan. Bilbaok adierazo dauenez, erabagi horrek ez dau “ezelango frikzino elementurik” sortu aldean artean. “Alde guztiak normaltasunez aritu ginan, lankidetzan, zintzotasunez eta modu emonkorrean”, esan dau. Dana dala, autortu dau Aldundiak “lehentasuna emon eutsala interes orokorrari, Athletic taldearen partikularrari emon beharrean”.

Bilbaok ez dau baztertu etorkizunean lehiaketan “aldaketak” gertatzeko aukerea, baina, egotekotan, azterketarako epealdiaren ostean helduko dirala esan dau. Dana dala, adierazo dauenez, nesken kasuan, futbol 9tik futbol 11ra dagon saltoa “handiegia” da.

PP eta Podemos Bizkaia taldeek ez dabe ulertzen sexuan oinarritutako bereizketea egiterik adin horreetan (12 eta 13 urte). Elsa Pamparacuatroren eretziz, futbola “tresna garrantzitsua izan daiteke bardintasun eraginkorra lantzeko”. Eduardo Andrés popularraren ustez, Aldundiaren erabagiak “desbardintasuna” sortzen dau, eta interesautako nesken eretxia ez dala kontuan hartu kritikau dau. “Zergatik ez dabe eurak erabagiten?”, galdetu dau.

Foru Gobernua eusten daben taldeak –EAJ-PNV eta PSE-EE– Aldundiak hartutako erabagiaren alde agertu dira, “kontsentsu zabalean” oinarrituta dagolako. EH Bilduk, bere aldetik, Athletic-en kasuan “salbuespen bat egin eitekeala” uste dau, eta datorren urterako gai hori aztertzeko eskaria egin dau.

KOANTIFIKATU BAKO KALTEAK GERNIKAKO ANDRA MARI ELEIZAN

Beste alde batetik, diputatu andreak jakinarazo dau Gotzaintzak salaketea aurkeztu dauela epaitegi batean, joan dan abuztuan baten batek Gernikako Andra Mari eleizearen atarian egoan XV. mendeko San Pauloren irudia apurtu ebalako. Jaubeek ez dabe oraindino kalteen zenbatekoa kalkulau. Talde Mistoaren galderei erantzunez, Bilbaok aurreratu dau Gotzaintzak ez deusola laguntzarik eskatu Aldundiari kalteak baloretako edo konpontzeko, Arte Sakratuko Museoa bere teknikoak daukazalako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
21/11/2017

La Diputación defiende el uso de las terrazas del Puente Bizkaia como espacio cultural y hostelero

En la comisión de Euskera y Cultura de las Juntas Generales celebrada hoy la responsable del área foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao ha comparecido a petición de la oposición en relación a tres asuntos: las terrazas hosteleras instaladas en el Puente Bizkaia; el destrozo de una imagen de San Pablo del siglo XV en la portada de la iglesia Andra Mari de Gernika; y la decisión de “impedir” que un equipo femenino del Athletic disputase este curso la liga infantil masculina.

En su primera intervención, Bilbao ha defendido la explotación hostelera y el espacio cultural creado en las terrazas del puente "colgante". Estos espacios ubicados en los bajos del Puente de Bizkaia, declarado por la Unesco en 2006 como Patrimonio de la Humanidad, son un “activo” para disfrutar del transbordador y “ayudan a que probablemente se acerquen más visitantes”. La diputada ha negado que la explotación hostelera de estas terrazas suponga “un daño o perjuicio” al elemento patrimonial, y ha asegurado, en respuesta a EH Bildu, que su uso cuenta con el visto bueno de la Unesco y de Demarcación de Costas.

La Diputación ha puesto en valor la labor que la compañía gestora ha realizado años atrás tras un proceso “integral” de rehabilitación y saneamiento del puente inaugurado en el año 1893. En este proceso, se enmarca la habilitación de espacios “accesibles al público” como las cuatro terrazas o la pasarela superior, en donde se desarrollan diferentes eventos y celebraciones como exposiciones, presentaciones, fiestas u homenajes.

Por su parte, EH Bildu maneja “criterios diferentes” a la Diputación. Cree que la volumetría de lo que se instala (sillas, mesas, sombrillas y ornamentación diversa) “obstaculiza” en muchas ocasiones la visión “de una obra de rango internacional”. “Degradan y humillan” el monumento y pueden provocar el rechazo de personas sensibles con el patrimonio cultural, según ha afirmado la apoderada Txusa Padrones quien ha abogado por que el puente tenga una protección “total”.

Podemos Bizkaia ha apoyado la intención de la coalición abertzale de que la empresa gestora prescinar de su explotación comercial, ya que supone “cierta privatización del espacio público”. El resto de grupos junteros –PNV, PSE-EE y PP- se han mostrado a favor de su uso comercial o cultural si sirven de eje de atracción como ocurre con otros emblemas arquitectónicos internacionales. Para los jeltzales el mismo caso se da en la Torre Eiffel de París. En cualquier caso, estos grupos creen que la situación “siempre se puede revertir”.

FÚTBOL FEMENINO

La diputada ha respondido también a Podemos Bizkaia en relación a la decisión foral de “impedir” que el equipo infantil femenino del Athletic jugara la liga masculina de fútbol 11. Según Bilbao la decisión tomada por la Diputación antes de que empezara la competición “no



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

fue unilateral”, sino que se tomó de manera “consensuada” con el Athletic, el resto de clubs, la federación vizcaína de fútbol, la dirección de igualdad de la institución foral y Emakunde.

La negativa de la Diputación al deseo del Athletic de que su equipo femenino infantil de fútbol 9 jugara la competición masculina, viene avalada “por estudios técnicos y tesis doctorales” en donde se han tenido en cuenta “el nivel de desarrollo” de las menores y las características del propio deporte. Bilbao ha asegurado que la decisión no ha supuesto “ningún elemento de fricción” entre las partes. “Todas las partes actuamos con normalidad y de forma colaborativa, sincera y fructífera” ha dicho, si bien ha reconocido que la Diputación “primó el interés general y no el particular” del Athletic.

Bilbao no se ha cerrado a que, en el futuro, puedan producirse “cambios” en la competición, aunque éstos vendrán tras un periodo de análisis. En cualquier caso, ha advertido que, en el caso de la chicas, el salto del fútbol 9 al 11 es “demasiado grande”.

Desde las filas de PP y Podemos Bizkaia no entienden que se pueda hacer una distinción en virtud del sexo a esas edades (12 y 13 años). Para Elsa Pamparacuatro el fútbol puede convertirse “en una herramienta importante para trabajar la igualdad efectiva”. El popular Eduardo Andrés ha sostenido que la decisión foral crea “desigualdad” y ha criticado el hecho de que no se ofrezca opinión a las interesadas. “¿Por qué no deciden ellas?”, ha cuestionado.

Los grupos junteros que sustentan al Gobierno foral –PNV y PSE-EE- han apoyado la decisión tomada por la Diputación, ya que parte de un “amplio consenso”. Por su parte, EH Bildu cree que en el caso del Athletic “se podría haber hecho una excepción” y ha pedido que se vuelva a estudiar el caso la próxima temporada.

DAÑOS SIN CUANTIFICAR EN LA IGLESIA DE ANDRA MARI DE GERNIKA

Por otra parte, la diputada ha anunciado que el Obispado ha puesto una denuncia en un juzgado por los destrozos ocasionados en agosto pasado en la imagen de San Pablo del siglo XV situada en la fachada de la iglesia Andra Mari de Gernika, que todavía no han sido cuantificados por sus propietarios. Bilbao ha avanzado, a preguntas del grupo Mixto, que el Obispado no ha pedido hasta la fecha ayuda a la Diputación para valorar los destrozos o reparar los daños, ya que cuentan con sus propios técnicos en el Museo de Arte Sacro.